



A m o r o t o k o U d a l a

Elexalde Auzoa, 1
48289 Amoroto (Bizkaia)
Tel: 946842549 - Fax: 946243704
E-mail: mblaka.amoroto@bizkaia.org
Web: www.amoroto.net

11/04 AKTA

2004KO ABENDUAREN 22AN EGINDAKO BATZARRA

Amoroton, udaletxeko batzar aretoan, bi mila eta lauko abenduaren hogeita bian, gaueko zortzietan, behean aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, Victor Maria Gabiola Leniz alkate jauna buru dela.

Bertaratuak:

Zinegotziak: Alexander Arrillaga Laka.
Ramon Abaroa Iturraran
Sorkunde Gabiola Zabala
Ainara Ikaran Zugazaga
Igor Gabiola Antxustegi

Idazkaria: Miren Begoña Laka Ortuondo

Bertaratu ez direnak:

Jon Laka Telleria

Alkate-udalburu jaunak batzarrari hasiera eman ondoren, aurreko batzarreko akta irakurri eta aho batez onetsi da.

Jarraian, ondorengo erabakiak hartu dira:

1.- LEHEN OKUPAZIORAKO HIRIGINTZ BAIMEN ESKAERA.-

Isidro Etxabe Iriondo jaunak Urrutia auzoko Urrutiako gune ruralean eraikitako etxebizitza bakarrerako lehen okupaziorako hirigintz baimena eskatu du.

Kontuan izanik eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa eta udal arkitektu aholkulariaren txostena, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Urrutia auzoko Urrutiako gune ruralean eraikitako etxebizitza bakarraren lehen okupaziorako baimena ematea, ondorengo baldintzarekin:

Partzela hesiarekin zarratu gabe dago oraindik. Itxi baino lehen, udalarekin hitz egin beharko dute, replanteo bidez adosteko nondik nora zarratu.

2.- EUSKO JAURLARITZAKO UREN ZUZENDARITZAK ESKATUTAKO TXOSTENA.-

Idazkariak azaldu du, "Lea ibarreko udalerrietako saneamendu proiektua: Okamika-Oleta tarte" obrak egiteko Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailak egindako eskaerari buruz, Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak udal txostena eskatu duela..

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Txosten faboragarria ematea "Lea ibarreko udalerrietako saneamendu proiektua: Okamika-Oleta tarte" proiektuari buruz.

3.- AURREKO AURREKONTUETAKO KREDITU BAJEN ESPEDIENTEA.-

Amorotoko Udalaren aurreko urteetako kreditu bajen espedientea aztertu dugu. Idazkari-kontuhartzaileak egindako proposamena eta txostenak, ziurtagiriak eta agiri horren gainerako jarduketak aztertu ondoren, kontuan hartuz adierazitako aldaketa aurrekontuaren garapena arintzeko mesedegarria izango dela eta espediente horren izapideketa aplikagarriak zaizkion legeei egokitzen dela, udal osoko bilkura honek bidezkoztat jo du bajei dagokion espedientea. Gastuetan bajak, 30,48 €, eta sarreretan bajak, 12.047,59 €; espedientean jasotako txostenean agertzen direlarik zehaztuta.

4.- UR HORNIKUNTZA SAREAN HOBEKUNTZETARAKO MEMORIA BALORATUEN IDAZKETA "LEARRI, S.A."RI AGINTZEA.-

Alkate jaunak azaldu du Amorotoko ur hornikuntza sarean obrak egiteko premia dagoela. Besteak beste, Babolinako kaptazioan eta Odiaga auzoan. Premiak zehazteko eta dirulaguntzak eskatu ahal izateko, ezinbestekoa da estudio edo proiektu txikiak eta planifikazioa egitea.

Honen aurrean, Udalbatzak aho batez erabaki du:

LEARRI, S.A.ri agindu "Odiaga auzoko ur sarea" eta "Babolinako uharka" izeneko estudio edo proiektu txikiak idaztea."

5.- HORNIKUNTZA ETA SANEAMENDURAKO TOKI PLANAREN BARRUAN OBREN EXEKUZIORAKO DIRULAGUNTZA ESKATZEA BIZKAIKO FORU ALDUNDIARI.-

Hornikuntza eta Saneamendurako Toki Planaren barruan, 2005eko Azpiegitura Hidraulikoen finantzaketa arautzen duen 218/2004 Foru Dekretuaren berri eman da.

Kontutan izanik Amorotoko udalerrian premia handiak daudela ur hornikuntza sisteman, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Dirulaguntza eskatzea Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen sailari, 2005eko Azpiegitura Hidraulikoen finantzaketa arautzen duen 218/2004 Foru Dekretuaren arabera, ondorengo proiektuen exekuziorako:

- Amorotoko Hiri Gunean zerbitzuak berregitea eta ezartzea. Aurrekontua: 425.302,69 €.
- Babolinako uharka. Aurrekontua: 44.016,71 €.
- Odiaga auzoko ur sarea. Aurrekontua: 35.980,68 €.

Dirulaguntza lortuz gero, inbertsioan finantzakide izateko konpromisoa beregan hartzen du Amorotoko Udalak.

6.- BIDEEN EGOKITZEA AMOROTON, 2005EKO KANPAINAKO OBREN EXEKUZIORAKO DIRULAGUNTZA ESKATZEA BIZKAIKO FORU ALDUNDIARI.-

2005erako Landabideen Laguntza Planaren egitarapena arautzen duten Bizkaiko Foru Aldundiaren 58/2002 Foru Dekretuaren eta 7071/2004 Foru Aginduaren berri eman ondoren eta Learri, S.A.k idatzitako memoria baloratuak ikusirik, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Dirulaguntza eskatzea Bizkaiko Foru Aldundiari, 2005erako Landabideen Laguntza Planaren karguz, ondorengo obren exekuziorako:

- Zeile, Zulueta eta Bekoerrotako bideak. Aurrekontua: 21.217,13 €.
- Odiaga auzobidea. Aurrekontua: 38.526,84 €.

Dirulaguntza lortuz gero, inbertsioan finantzakide izateko eta eginda gero landabidearen zaingoaz arduratzeko eta konpontzeko konpromisoa beregan hartzen du Amorotoko Udalak.

7.- EUDEL ETA IBERDROLAREN ARTEKO HITZARMENERA ATXIKITZEA.-

2004ko azaroaren 4an EUDELek eta Iberdrola Distribución Eléctrica enpresak hitzarmena sinatu dute, tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasa udalek kudeatzeko xedez.

Hitzarmen honen abantailez baliatzeko, udala hitzarmenera atxiki beharko litzateke. Honen aurrean, Udalbatzak ahobatez erabaki du:

Tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasa udalek kudeatzeko, 2004ko azaroaren 4an EUDELek eta Iberdrola Distribución Eléctrica enpresak sinatutako hitzarmenera atxikitzea.

8.- ELIMENDIKO UDAL ETXEBIZITZA ERRENTAN EMATEA.-

Alkate jaunak azaldu du bukatu dela Elimendi etxeke 2. solairuko eskuinean kokatutako udal etxebizitza errentan hartzeko eskaerak aurkezteko epea.

Gaia aztertu ondoren eta interesatuekin hitz egin ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Eneritz Badiola Kortabitarte andreari errentan ematea Elimendi etxeke 2. solairuko eskuinean kokatutako udal etxebizitza. Errentamendurako baldintzak ondorengoak dira:

- Errentamenduaren epea 2005eko urtarrilaren 1etik hasiko da eta BOST (5) urteko iraupena izango du. Dena den, Udalak arazo larriren batengatik etxebizitza beharko balu hiru hilebeteko epean utzi beharko du errentariak. Arazo larritzat joko da, besteak beste, udalerriko familiaren baten beharrian egoera.
- Hileroko errenta BERREHUN (200,00 €) eurokoa izango da. Errenta urtero gaurkotuko da, IPC delakoak estatu mailan aurreko urtean izandako igoeraren arabera.
- Interesatuarekin adostu da beharrezko obra eta gastu batzuek egitea etxebizitzan, bizitzeko moduan jartzeko. Gastu horiek errentariak ordainduko ditu eta hileroko errentarekin konpentsatuko zaizkio. Errentariak ordaindutako gastu guztien zerrenda, justifikanteekin, udalean aurkeztuko da kalkulatzeko zenbaterako konpentsazioa egin behar den.

2) Alkate-udalburu jauna ahalmentzea dagokion errentamendu kontratua izenpetzeko.

9.- ELEIZALDE IEKO URBANIZAZIOAREN JARRAIPENARI BURUZ CARLOS ANAKABEREN PROPOSAMENA.-

Alkate jaunak azaldu du Carlos Anakabe jaunak, Basterra baserriko jabeak, aurkeztutako proposamena.

Ondorengo da: Basterra baserri alboan duen lursail bat dohainik ematea, espaloi bat eraikitzeko, manposteriazko eustorma bat eraikitzeko baldintzarekin. Espaloiak 40 metroko luzera izango luke, 1,5 metroko zabalera eta Eleizalde I urbanizazio proiektuarekin loturik. Kostua 20.500,00 € eurokoa, udalaren kontura.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Carlos Anakabe jaunak aurkeztutako proposamena onartzea eta Learri, S.A.ri agintzea egin dezala obra, Eleizalde Ieko urbanizazioaren jarraipen bezala, Amorotoko Udalaren kargura.

10.- DIRULAGUNTZA ESKAERAK.-

Aurkeztutako dirulaguntza eskaerak azterturik, eta 1999ko abuztuaren 25eko osoko bilkuran finkatutako irizpidea jarraituz, Udaltzak aho batez erabaki du:

- 1) Ondoren aipatzen den dirulaguntza ematea:
 - Saharar Herriaren Lagunen Euskal Elkarteen Koordinakundea, 150,00 €.
- 2) Bizkaiko Odol-Emaleak Aldizkariari dirulaguntzarik ez ematea, ez baitu jadanik odol-emaleen elkartearekin zerikusirik."

11.- GASTUAK.-

Ondorengo gastu eta fakturak aurkeztu, behar bada, onartzeko:

- Igor Gabiolari, 160,00 €.
- Bilbao Baserri Tresnaken faktura, 36,10 €.
- Saneamientos Ondarroa, S.L.ren faktura, 15,64 €.
- Ansaren faktura, 22,29 €.
- Canonen faktura, 44,00 €.
- Fontaneria Letraukua, S.L.ren faktura, 111,49 €.
- Cetolar, S.A.ren faktura, 198,36 €.
- Wurthen fakturak, 13,92 € eta 265,74 €.
- Trebil, S.L.ren faktura, 22,97 €.
- Learriren faktura, 2.987,40 €.

Udaltzak aurkeztutako gastuak onartzea eta ordaintzea erabaki du.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburu jaunak bilera amaitutzat eman du gaueko hamaikak eta laurdenak direnean eta nik, Idazkariak, erabakitakoak jasotzeko akta hau egin dut.